

W. von Humboldtten euskal ikerketen esanahia haren antropologian

(The meaning of the Humboldt's Basque studies in his anthropology)

Zabaleta Gorrotxategi, Iñaki

Eusko Ikaskuntza

Miramar Jauregia - Miraconcha, 48

20007 Donostia

BIBLID [0212-7016 (1996), 41: 2; 431-452]

Gizabanako eta nazio ezberdinen indibidualitatea onartu eta garatu nahi duen "antropologia konparatu" batetik abiatuz W. von Humboldt Euskal Herriaz interesatu zen. Hona etorrita euskaldunen fisionomia, historia, herri-kultura eta organizazio sozio-politikoa aztertu zituen batez ere, Euskal Nazioa bera ezaugarritu nahian. Berehala konturatu zen ordea honetarako beharrezkoa zuela hizkuntzara jotzea eta ondorioz herri hau utzi eta ondorengo urteetan Euskal Hizkuntza sakonki aztertzen saiatu zen. Euskal ikerketa abiapuntu bezala harturik bultzada eta orientazio berri bat eman zion orokorrean bere pentsamenduari "antropologia linguistikoko" moduko bat garatuz, jatorrizko helburua ezertan aldatu gabe.

Giltz-Hitzak: Antropologia. Nazioa. Hizkuntza.

W. von Humboldt se interesa por el Pueblo Vasco desde una "antropología comparada" que quiere aceptar y desarrollar la indibidualidad propia de las diferentes personas y naciones. Viniendo aquí investigó sobre todo la fisionomía, la historia, la cultura popular y la organización socio-política de los vascos con el fin de caracterizar a la misma Nación Vasca. Pronto se dio cuenta de que para ello tenía que concentrarse en el lenguaje y en consecuencia se dedicó a investigar en profundidad la lengua vasca después de abandonar el país. Tomando como punto de partida la investigación vasca Humboldt dió un nuevo impulso y orientación a su pensamiento en general desarrollando una especie de "antropología lingüística" sin cambiar en nada su objetivo primero.

Palabras Clave: Antropología. Nación. Lengua.

W. von Humboldt s'intéresse au Pays Basque du point de vue d' une "anthropologie comparée" qui veut accepter et développer l'individualité propre des différentes personnes et nations. En venant ici, il chercha surtout la physiologie, l'histoire, la culture populaire et l'organisation socio-politique des basque dans le but de caractériser cette même Nation Basque. Il se rendit bientôt compte que pour cela il devait se concentrer sur le langage et, par conséquent, se consacra à faire des recherches en profondeur sur la langue basque après avoir abandonné le pays. En prenant comme point de départ la recherche basque, Humboldt donna un nouvel élan et une nouvelle orientation à sa pensée en général en développant une sorte d' "anthropologie linguistique" sans changer en rien son objectif premier.

Mots Clés: Anthropologie. Nation. Langue.

0. SARRERA

0.1. Wilhelm von Humboldt (1767-1835) bi alditan egon zen Euskal Herrian Parisen bizi izan zen garaian. Lehenengo aldian Espainian zehar egindako bidaia luze baten barne Humboldt ez zituen Euskal Herrian bertan egun batzu baino pasa. Konkretuki Humboldt 1799-ko urriaren 10-ean edo 11-an iritsi zen Baionara, hurrengo egunetan bidean zeuden zenbait herri ezagutu zituen eta hilaren 18-an utzi zuen Araba Gaztelarako bidean¹. Bigarren aldian Humboldt denbora luze batez egon zen Euskal Herrian bertako hizkuntza eta probintziak ezagutzeko asmoz burututako beste bidaia batean. Oraingo honetan Humboldt 1801-eko apirilaren 27-an iritsi zen Baionara, ondorengo asteetan hegoaldeko eta iparraldeko zenbait herri ezagutu zituen eta ekainaren 3-an abiatu zen Baionatik Parisera². Bi egonaldi hauetan Humboldt ikusi eta ikasitakoak bere egutegi eta eskutizetan idatzi zituen kontu haundiz³. Idazki hauek oinarritzat hartuz Euskal Herrian zehar egindako bidaien beste bi deskribapen sakon eta zabal landu zituen Humboldt, alegia, "Cantabrica" eta "Die Vasken".

Dena den ez zen Humboldt euskal ikerketa bidaia hauekin bukatu. Euskal Herrian zehar egindako bidaien aurretik, bitartean eta ondoren Humboldt euskal gaiekin zerikusia zuen zenbait material biltzen joan zen eta pixkanaka gaiari buruzko liburutegi txiki bat osatu zuen. Bertan Euskal Hizkuntzari buruzko liburuak aurkitzen ditugu batez ere, alegia, gramatikak, hiztegiak eta literatura⁴. Paris utzi ondoren Humboldt, izan zituen kargu politikoak zirela eta, ezin izan zuen jarraian bildutako material guzti hau landu. Zenbait eskutiz eta testutan ordea berak euskal gaian sakontzeko zuen asoma garbi agertzen da. Urte batzuren buruan eta bere erantzunkizun politikoak arintzen dijoazten heinean Humboldt euskal ikerketari buruzko bere proiektua gauzatzen joango da. Horrela euskaldunak ezagutu eta oraindik hogeitertara ere euskal gaietaz jarraituko du idazten. Bi dira hauen artean testu garrantzitsuenak: "Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweitens Bandes des Mithridates über die kantabrische oder baskische Sprache" hizkuntzari buruzkoa eta "Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Hispaniens vermittelt der vaskischen Sprache" historiari buruzkoa⁵.

0.2. Humboldt euskal ikerketen gainbegiratu honek bakarrik garbi erakusten digu berak sakonki aztertu nahi izan zuela euskal gaia. Beste hitz batzu erabiliz esan dezakegu Humboldt erakusten duen Euskal Herria eta Hizkuntzarenganako interesak ez duela arrazoi nahiko aurkitzen turismorako gogo edota azaleko curiositate batetan. Beraz interes honen sakoneko arrazoia aurkitu nahi badugu Humboldt orokorrean pentsalari bezala duen asmoa zein den jakin beharko dugu.

Humboldt eremu ezberdinetan sakonki lan egin zuen pentsalari bat izan zen. Bere idazlanen artean estetika, literatura, pedagogia, historia, politika, filosofia eta hizkuntzalaritzari

1. Lehenengo bidaia hau Humboldt bere familia guztiarekin burutu zuen, Parisetik 1799-9-8-an abiatuz eta 1800-4-16-an bertara itzuliz.

2. Bigarren bidaia honetan Humboldt Bilboraino lagundu zion lagun bakar batekin (Bockelmann) abiatu zen Parisetik 1801-4-19-an eta bertara 1801-6-14-an itzuli zen.

3. Bidaien egutegiak honako hauek dira: "Tagebuch der Reise nach Spanien 1799-1800" eta "Tagebuch der baskischen Reise 1801". Eskutitzen artean garrantzitsuenak Humboldt bere emazteari bigarren bidaiaren zehar idatzitakoak dira.

4. Euskal Hizkuntzari buruz bakarrik gutxienez 30 liburu bildu zituen Humboldt. Ikus Mueller-Vollmer 1993, 442-443.

5. Humboldt euskal ikerketen gainbegiratu batetarako ikus Garate 1933.

buruzko ikerketak aurkitzen ditugu. Baina gai ezberdinetaz arduratzen baldin bada ere Humboldten kezka beti bat eta bera da, alegia, gizakia. Pentsalari bezala berak duen helburua beraz gizakia aztertzea izango da. Eta bere ustetan gizakiaren azterketa serio bat gizakia bere osotasunean aztertzen duena bakarrik denez, derrigorrezkoa ikusten du Humboldtek lehen aipaturako disziplina guztiak aztertzea eta hauen arteko lotura aurkitzen saiatzea. Horrela ba ikerketa interdisziplinario baten bidez Humboldtek gizakia seriozki aztertu nahi izango du. Hitz batetan, Humboldt ikusmira filosofiko batez gizaki konkretua ikertzen duen antropologo bat da. Eta ikusiko dugun bezala antropologia izango da ere berak Euskal Herrira etorri eta Euskal Hizkuntza aztertuz egin nahi izan duena.

0.3. Orain arte esandakoa kontutan hartuz orrialde hauen helburua zein den azaltzea baino ez zaigu gelditzen sarrera honetan. Izenburuan diogun bezala Humboldten euskal ikerketen esanahia haren antropologian azaldu nahi dugu. Hau da, gure helburua Humboldten euskal ikerketen irakurketa antropologiko bat egitea edota euskal ikerketa horiek Humboldten antropologian kokatzea da. Honetarako ondorengo hiru galderei erantzuna ematen saiatuko gara. Lehen galdera: Zer ulertzen du Humboldtek antropologiaz euskal gaiaz arduratu aurretik? Bigarren galdera: Ze ikerketa antropologiko burutzen du Humboldtek Euskal Herrian? Hirugarren galdera: Zer ikertzen du Humboldtek euskal gaiari buruz bidaien ondoren, eta nola eragiten du honek bere antropologian? Galdera hauek osatzen dute hemen aurkeztuko dugunaren haria.

1. HUMBOLDTEN ANTROPOLOGIAREN KONTZEPZIOA EUSKAL GAI AZTERTU AURRETIK

1.1. Historizitatea Humboldten antropologiaren abiapuntu bezala

1.1.1. Humboldt gazte zelarik antropologiaren kontzepzio propio bat eta honen ikerketa-rako metodo apropos bat lantzen saiatu zen berak "antropologia konparatua" deitzen zuen proiektu baten barne. Humboldten ahalegin guzti hauen gailurra berak Parisera joan aurretik idatzitako "Das achtzehnte Jahrhundert" (1796) eta "Plan einer vergleichenden Anthropologie" (1797) izeneko testuetan aurkitzen dugu. Hauen mamia azaldu aurretik beharrezkoa dugu, labur bada ere, garai hartako antropologia filosofikoaren egoera azaltzea Humboldten proiektuaren berezkitasuna hobeto ulertu ahal izateko.

1.1.2. XVIII. mendearen bukaera aldean aurkitzen gara eta garai honetan antropologia filosofikoak bere presuposuei buruzko diskusio sakon bat bizi du. Herderrek gizakiaren historizitatearen berezko garrantzia aurkitu eta azpimarratuko du, eta honekin garai hartan nagusi zen Kanten antropologia kolokan jarriko du zenbait aspektutan.

Bere filosofia trascendentalari jarraituz Kantek zientzia huts baten moduan ulertuko du antropologia, eta ondorioz honen eginkizuna gizakia perspektiba orokor eta arautzaile batetik aztertzea izango da. Kantek gizakiarengan unibertsala dena aurkitu nahi du, honetarako gizakien aspektu zirkunstanzialak alde batera uzten dituelarik. Gizakiaren historizitatea osatzen duten zirkunstanzia horiek ordea ez dira Herderrentzat bigarren mailako elementuak, baizik eta gizakia gizaki bezala osatzen duten ezinbesteko baldintzak. Horrela, ba, Herderren arabera benetako antropologia gizakia bere bilakaera konkretuan aztertzen duen iharduera izango da, hau da, denboran eta espazioan konkretua den gizakiaren izakera ikertzen duen saiakera. Historizitatea ikerketa antropologikoaren printzipio edo abiapuntu bezala hartzen duen unetik garbi ikusiko du Herderrek ezin izango dituela giza natura eta giza arazoimena mugiezinak edo finkoak bezala kontsideratu. Ondorioz Kantek proposaturiko antropologia orokortzaile eta arautzailea ez zaio nahiko edota egokia irudituko Herderri.

1.1.3. Garaiko kontestu intelektual honetan Humboldték Herderren historizitatearen printzipioa jaso eta onartuko du, eta beste pentsalari askok bezala bide berri bat ireki nahi izango dio antropologia filosofikoari bere “antropologia konparatuaren” proiektuarekin. Honen helburua gizakia bere indibidualitatean, alegia, bere izakera konkretuan aztertzea eta ulertzea da. Ikerketa antropologikoaren objektu hori adierazteko Humboldték “karaktere” hitza erabiliko du. Antropologia konparatuaren eginkizuna beraz gizakiaren karakterea bere dibertsitate eta aniztasun osoan aztertzea eta baloratzea izango da. Humboldték dioen bezala “gizakiaren ezagutza indibidualizatzaile” bat da behar dena eta ez “gizakiaren ikerketa orokor bat”⁶.

1.2. Humboldtén antropologia konpatua

1.2.1. Gizakiaren ezagutza (Menschenkenntnis) eta gizakiaren humanizazioaren (Menschenbildung) arteko lotura da Humboldtén antropologiaren ezaugarririk garrantzitsua.

Gizakiaren karakter indibiduala denez antropologiaren aztergaia ezinezkoa izango da gizakiaren behin betiko ezagutza teoriko bat lortzea. Hau kontutan harturik Humboldték beharrezkoa ikusiko du antropologia ezagutza mailan bakarrik ez kokatzea eta hau aspektu humanizatzaile batekin aberastea. Humboldtén antropologiak azken finean gizakiaren ezagutza eskuratuko duen behaketa enpiriko-praktikoa eta humanizazioa posibilitatuko duen erreflexio espekulatiboa elkarlan orekatu batetara eraman nahi ditu. Ezagutza eta humanizazioa elkartu egiten dira beraz, eta ondorioz antropologia konparatuaren betebeharra ez da bakarrik gizakiaren iragana eta oraina azaltzea, baizik eta baita berari etorkizun bat begibistan jartzea. Honela dio Humboldték: “Ez dira bakarrik errealtatean osaturik dauden <karakterearen> alderdiak azaldu behar, baizik eta baita izatera iritsi beharko luketen edo izatera iritsi daitezkeen haiek.”⁷ Antzeko beste hitz hauek ere aurkitzen ditugu Humboldtengan: “Gizakia bera den horretan zehaztasunez ezagutu ahal izateko, eta aldi berean izatera iritsi daitekeen horretan askatasunez baloratu ahal izateko, beharrezkoa da behaketa praktikoa zentzuak eta izpiritu filosofikoak elkarturik lan egin dezaten.”⁸ Horrela ba Humboldtén antropologian gizakiaren ezagutzak bere zentzu osoa gizakiaren humanizazioan aurkituko du.

Humboldtén antropologiak erakusten duen ezagutza eta humanizazioaren arteko erlazioa posible da oinarrian indibidualitatea eta idealitatea sakonki lotuta daudelako. Azkeneko bi kontzeptu hauen artean ez dago Humboldtén arabera kontraesanik arrazoi honengatik: “Gizabanako bakoitza errealtatean gauzatutako ideia bat da.”⁹ Gizakiaren historizitateari buruz esandakoaren harian indibidualitatea eta ideiaeren arteko erlazioa, errealtatea eta posibilitatearen artekoa alegia, ezin da behin betirako finkatu. Ondorioz Humboldték bere antropologia gizakia den indibidualitatea eta izan daitezkeen ideiaeren arteko balantza batetan ikusiko du. Bere eginkizuna errealtatea nola ideia eta aldi berean ideia nola errealtate bihurtzen joan daitezkeen argitzea da¹⁰. Humanizazioaren emaitza beraz “indibidualitate ideal” bat

6. Ikus Plan, HS I 344, 354-355

7. 18Jh, HS I 376

8. Plan, HS I 338

9. Geschichte, GS III 198

10. Humanizazioa beraz auto-humanizazio edo auto-errealizazio bat izango da Humboldtentzat. Ikus Menze 1965, 120.

izango da. Bertan gizakiak humanitatearen behar orokorrak bete beharko ditu gizabanako konketu bezala dituen ezaugarriei uko egin gabe. "Humanizazioak karakter indibidualen singularitatea gorde behar du, baina aldebakarra bihurtu gabe (...). Barne aldera kontsekuente izanez eta kanpo aldera idealarekin kongruente izanez <karakter indibidual> guztiek elkarrekin era solidario batez jokatu beharko dute."¹¹

Laburtuz esan dezakegu Humboldtten antropologia konparatua ikuskera praktikoa batetik abiatuz gizakiaren ezagutza eta humanizazioa elkarlanean jarri nahi dituen "zientzia teleologikoa" bat dela. Humboldttek hitz hauekin azaltzen du hau: "Antropologia konparatuak helburu bikoitz batetarako balio du: karakterren ezagutza erretzen du, eta aldi berean haien balorea estimatzeko gida filosofikoa bat eskeintzen du, ondorengo bilakaerak antzeman ahal izateko eta baita gutxi gora behera kalkulatu ahal izateko ze neurritan izango diren guztiak gai elkarrekin osotasun bezala jokatzeke."¹²

1.2.2. Humboldtten antropologia konparatuaren ezaugarri nagusia azaldu ondoren, bere helburua, metodoa eta fakultatea zehazten saiatuko gara orain.

Gizakiaren karakter indibiduala denez Humboldtten antropologiaren aztergaia hasieratik onartu beharrekoa da bertan ezagutzak ezagutza bezala edukiko duen muga. Gizakia izaki konketu eta historikoa bat da, eta honen arabera ezinezkoa izango da hura kontzeptuetan finkatuko duen ezagutza zientifikoa huts batetara iristea. "Antropologia konparatuak esku artean darabilen aztergaiak ezin du tratamendu zientifikorik ez eta tratamendu teorikorik onartu."¹³ Gizakia kanpotik berarengan ikusten dena baino askoz ere gehiago da, eta honengatik Humboldttek bere ikerketa antropologikoa amaierarik gabeko egiarenganako hurbiltze bat bezala ulertuko du. Helburua ez da bertan gizakiaren karakter indibiduala definitzea eta mugatzea, baizik eta karakter honen elementu guztiak aztertzea, erlazionatzea eta osotasun bezala deskribatzea. Honen arabera Humboldttek bere "karakteraren ezagutza" (Charakterkenntnis) "karakteraren margoa edo irudia" (Gemähde des Charakters) bezala ulertuko du¹⁴. Hitz berriago batzua erabiliz esan dezakegu Humboldtten gizakia hermeneutikoki nahi duela ulertu eta ez hainbeste zientifikoki ezagutu.

Humboldtten antropologiaren metodoari dagokionez bi kontzeptu dira azpimarratu beharrekoak, alegia, behaketarena eta konparaketarena. Dakigun bezala gizakia beti historikoa eta konketua da, eta honen karaktere indibiduala denez Humboldtten antropologiaren aztergaia, behaketa zuzena bakarrik izan daiteke ikerketaren abiapuntua. Kriterio teorikoek eta neurri unibertsalek ez dute balio berez indibiduala dena aztertu nahi denean, eta honengatik Humboldtten derrigorrezkoa ikusten du antropologiaren iharduera esperientziaren eremuan kokatzea. Ez dago ordea esperientziarik antropologoak zuzenean "bizitzan" bilatzen ez bada eta bertan "murgiltzen" ez bada¹⁵. Honelako esperientzia batetan ematen den behaketa hutsak ordea ez du karakter ezberdinen ezagutza edo "irudia" eskuratzen baldin eta behatutakoa arrazoiaren laguntzaz lantzen ez bada. Eta behatutakoaren elaborazio honetan dauka hain zuzen konparaketak ezibesteko garrantzia. Konparaketari esker bakarrik izango da posible batetik bereiztea zer den berezkoa eta zer erantsia gizakiarengan, alegia, zer den oina-

11. Plan, HS I 339

12. Plan, HS I 344

13. Plan, HS I 359

14. Ikus 18Jh, HS I 484

15. Ikus Plan, HS I 362, 352

rrizkoa eta zer zirkunstantziala. Bereizketa hau ezinbestekoa da indibidualitatea eta idealitatearen arteko oinarritzko lotura ikusi ahal izateko, eta dakigun bezala hemen oinarritzen da Humboldtten antropologia ezagutzaile eta humanizatzailea. Bestetik konparaketari esker bakarrik izango da posible gizabanakoen arteko ezberdintasunak eta antzekotasunak antzematea, eta honekin batera gizabanako horiek taldekatzea¹⁶. Kontutan hartu behar da ordea konparaketak ez duela hemen klasifikazio bat bilatzen, baizik eta gehienez lagungarri izango den agrupazio bat. Esandakoaz gainera aipatu beharra dago konparaketak batez ere ezberdintasunak zehazteko balio duela eta ez hainbeste orokorra dena definitzeko. Gizakiaren karaktere indibidualaren ikerketaren lehenengo pausoa beraz karaktere hori zer ez den zehaztea izango da.

Antropologia konparatuaren instrumentoa den irudimena edo "ingenioaren fakultatea" zer den labur komentatzea baino ez zaigu geratzen. Gizakiaren karakterea bere indibidualitatean eta bere osotasunean hermeneutikoki ulertzea baldin bada Humboldtten helburua eta ez hainbeste hura zientifikoki ezagutzea, beharrezkoa izango da ere hori eskuratuko duen giza fakultatea zein izan daitekeen aztertzea. Kontzeptuen eremuan bakarrik kokatzen den arrazoimen hutsa (Vernunft) ez da nahiko izango ez bait da arrazoimen hori gizakia errealtatean den horretatik abiatzen. Errealtatearen eremuan bakarrik kokatzen den adimena edo arrazoimen empirikoa (Verstand) ez da ere nahiko izango ez bait du arrazoimen honek gizakia izan daitekeen horretan kontutan hartzen. Humboldttek ondorioz beharrezkoa ikusiko du bere ikerketa antropologikoa bi arrazoimen mota hauek lotuko dituen irudimena edo "ingenioaren fakultatean" (Einbildungskraft) oinarritzea. Fakultate honek gizakiaren aspektu ezberdinak osotasun bezala jasotzeko, lotzeko eta adierazteko indar sistematiko bat dauka. Eta hau, ikusi dugun bezala, beharrezkoa da gizakiaren karakterea orain den honetan eta etorkizunean izan daitekeen horretan erakutsiko duen "margo edo irudi" (Bild) batetara iristeko¹⁷.

1.3. Nazioa Humboldtten antropologia konparatuan

1.3.1. Lehen azaldu den bezala Humboldtten antropologia konparatuak gizakiaren karakterea, hau da, bere indibidualitate konkretua du aztergai bezala. Honek ez du esan nahi ordea berak teoria indibidualista bat eraiki nahi duenik. Gizakiaren historizitatea printzipio bezala hartzen duen momentutik giza taldea eta honen garapena aztertu beharrekoak izango ditu ere Humboldttek bere antropologian. Azken finean Humboldt perspektiba filosofiko bateatik diharduen pentsalari bat da, eta honen ondorioz bere gizakiaren ikerketa humanitatearen ikerketa bezala ulertu behar da.

Humboldtten ahaleginen berrikuntza ikerketaren direkzioan kokatzen da. Gizakiaren azterketa ez da berarengan humanitate orokor batetik abiatuz giza konkrezio ezberdinetara iritsi nahi duen ikerketa, baizik eta, giza konkrezio ezberdin horietatik abiatuz etengabe humanitateaz dakiguna berritu eta osatu nahi duena. Hau honela izanda Humboldttek beharrezkoa ikusiko du batetik ahalik eta giza konkrezio gehienak aztertzea humanitatearen perspektiba geroz eta zabalago bat eduki ahal izateko, eta bestetik giza konkrezio bakoitzaren kontestu ezberdinak kontutan hartzea hauek aztertzerakoan. Humboldttek honela dio: "Era zuzen eta oso batez azaldu behar da gu garena, baina ez gara izan behar aurkeztuak denboraren koadro osotik kanpo dagoen irudi hil bat bezala, baizik eta elkarrekin diharduten

16. Ikus Plan, HS I 353

17. Ikus 18Jh, HS I 447, 473, 483

kausen lerro etengabe baten elementu bizi bat bezala, hots, aldi berean gure aurretik ziharduten indarren produktu eta gure ondoren etorriko diren beste batzuen iturri bezala.”¹⁸

Esan bezala Humboldttek bere antropologian gizakiaren kontestu edo ingurune ezberdinak eta hauek berarengan duten edo eduki dezaketen eraginak aztertu beharko ditu. Horrela ba gizakia izaki fisiko-naturala denez bere kontestu fisiko-naturala, izaki historikoa denez bere kontestu historikoa edo garaia, izaki sexuala denez bere kontestu sexuala edo sexu baten parte izatearen esanahia, eta izaki soziala denez kontestu komunitarioa edo nazioa aztertzen saiatuko da Humboldt. Zalantzarik gabe azkeneko hau da Humboldtentzat garrantzitsuena, aurreko guztiak biltzen bait ditu bertan.

1.3.2. Nazio kontzeptua bera ez da Humboldtengan erraz ulertzeko modukoa ez bait dugu bere testuetan kontzeptu honen definizio garbiegirik aurkitzen. Begibistan dago ordea behin eta berriz erabiltzen duela Humboldttek hitz hau, eta gainera kontzeptu honen presentzia nabarmena ez dela kasualitatezkoa baizik eta lehen mailakoa. Humboldttek behin baino gehiagotan adierazten duen bezala bere antropologiak nazio ezberdinak elkarren artean nahi ditu konparatu. Nazioa beraz Humboldtten ikerketa antropologikoaren objektu espezifiko bat da.

Nazioari buruzko definiziorik aurkitzen ez badugu ere posible da gure aldetik Humboldttek hainbestetan erabiltzen duen kontzeptu horren mamia lerro batzutan azaltzea. Nazio kontzeptua ez da Humboldtengan apriorizko kontzeptu bat, esentzia abstraktu bat edo ideia platoniko bat, baizik eta behatzearen, konparatzearen eta taldekatzearen emaitza den kontzeptu funtzional bat¹⁹. Gizabanako ezberdinen behaketa zuzena abiapuntutzat hartuz Humboldttek konparaketari esker lehenik hauen arteko ezberdintasunak eta antzekotasunak antzeman ahal izango ditu, eta hemen oinarrituz gizabanako horiek taldekatzen saiatuko da ondoren. Esentzialismo batetik abiatu gabe eta esentzialismo batetan erori gabe beraz, nazio kontzeptua Humboldtengan konstatazio baten fruitua da, alegia, gizaki konkretu batzuk elkarren artean (barrenaldera) azaltzen duten nolabaiteko lotura konstatatzearen eta beste giza-kienganako (kanpoaldera) erakusten duten nolabaiteko ezberdintasuna konstatatzearen fruitua. Nazio kontzeptua tradizio bat, historia bat, errealitatea ulertu eta antolatzeo tankera bat, eta azken finean hizkuntza bat elkarbanatzen duen giza taldea adierazteko balio duen kontzeptua da Humboldtengan. Hau errazago ulertzeko Humboldttek aztertzen duen sexu-ezberdintasuna²⁰ har dezakegu adibide bezala. Gizakien artean bi talde bereizi daitezke, gizonezkoena eta emakumezkoena, inongo apriorizko esentzia edo kontzeptu batetik abiatu gabe. Neurri berdinean uste du Humboldttek posible dela behatuz eta konparatuz gizabanako ezberdinak nazioen arabera taldekatzea.

Nazioak batasun historiko eta konkretu bat agertzen duenez Humboldttek nazioa “indibidualitate” bat bezala kontsideratuko du, eta hala beharrez nazioa bere antropologia konparatuaren ikerketaren objektu propio bat izango da. Horrela ba Humboldt “indibiduoaz” ari denean “gizabanakoari” eta baita “nazioari” buruz ari da hitz egiten²¹. Hau ikusita erraz uler daiteke zergatik Humboldttek hainbestetan “herri karaktereaz” (Volkscharakter) eta “karaktere nazionalaz” (Nationalcharakter) hitz egingo duen. Garbi dago ordea ere Humboldtentzat giza-

18. 18Jh, HS I 376

19. Humboldtengan kontzeptu guztiak daukate izakera anti-metafisiko bat eta ondorioz ez da harritzekoa nazioari buruzko definizio zehatzik eman ez izatea.

20. Ikus adibidez Plan, HS I 363-375

21. Ikus Betrachtungen, HS I 569

banakoa eta nazioa maila ezberdineko indibidualitateak edo indibiduoak direla²². Dena den nazioa antropologia konparatuaren aztergai garrantzitsu bat da. Nazio ezberdinak konparatuz Humboldték nazio bakoitzaren muinera, alegia, bere indibidualitatera iritsi nahi du. Guztiaren helburua ezagutza historiko zehatzean oinarritzen den nazioen karaktereen deskripzio filosofikoa eskeintzea da.²³

1.3.3. Bukatzeko aipatu beharra dago Humboldték kezka politiko bat duela nazioaz arduratzerakoan. Berak adierazten duen bezala nazio batetan giza indibidualitate ezberdin asko biltzen da, eta baita ere askotan estatu batetan nazio ezberdinak elkarrekin bizi dira. Honen ondorioz, eta berari jarraituz, politikaria beti dilema batetan aurkitzen da bere erabakiak hartzerakoan: edo ezberdintasunen homogeneizazio bat efikaziaren izenean bultzatu edo karaktere ezberdinen aniztasunak dakarren aberastasuna indartu. Humboldték ikusten duen bezala politikariak gehienetan lehenengo bidea aukeratzen du, baina bere ustetan ez da hau kalterik gabeko erabakia. “Gai honi buruzko ohizko teoria abusu haunditan erortzen da. Honen arabera legegizonek singularitateak aprobetxatu behar dituzte nazioa errazago menperatu ahal izateko. Baina perspektiba politiko huts honek, alegia moral gorenagorik gabeko perspektiba horrek, zenbait ahulezi eta makaldura kontzienteki mantentzeko arrisku garbia dakar.”²⁴. Humboldték jarraian dioen bezala dilema honetan bide zuzena aurkitu ahal izateko beharrezkoa da aurretik indibidualitate errealean, hau da, gizabanako zein nazio konkretuen ikerketa zehatza burutzea. Hau da hain zuzen berak bere antropologia konparatuarekin egin nahi izango duena.

2. HUMBOLDTEN IKERKETA ANTROPOLOGIKOA EUSKAL HERRIAN

2.1. Bidaien esanahia Humboldtén antropologian

2.1.1. Humboldték Euskal Herrian zehar egindako bidaiak bere sakontasun eta osotasunean ulertu ahal izateko beharrezkoa dugu lehenik bidaiatzeak berak bere antropologia konparatuan duen lekua eta garrantzia kontutan hartzea. Hasteko esan beharra dago Humboldt gazteak XVIII. mendearen bukaerak erakusten duen bidaienganako zaletasunarekin bat egingo duela. Garai honetan antropologiaren autonomia haunditzen joango da eremu guztietan, eta honekin batera eta neurri berdinean herri eta kultura ezberdinak bidaiaren bitartez ezagutzeko interesa ere areagotu egingo da. Joera honekin bat eginez Humboldték zenbait bidaiak egingo ditu bere gaztaroko formazioa aberastu nahian. Humboldt ez da ordea honekin bakarrik geldituko. Denborarekin bidaiatzearen zentzua bere antropologia konparatuan txertatzen joango da, eta denboraren poderioz bidaiaren teoria propio bat landuko du. Horrela, ba, bidaiatzeak Humboldtengan zentzu antropologiko bat izango du batez ere.

2.1.2. Humboldtén antropologiaren helburua ez da, ikusi dugun bezala, kontzeptu zehatzak batetara iristea, baizik eta “irudi edo margo” deskribatzaile bat aurkeztea. Kontua ez da hemen behatutakoa elementu ezberdinetan zatikatzea eta analizatzea, baizik eta elementu ezberdin horiek aztertuz eta elkarren arteko lotura bilatuz, gizaki edo herri bat osotasun dinamiko bat bezala aurkeztea, alegia, herri edo gizaki baten “karakterea” ulertzera ematea. Humboldték dioen bezala hau ezinezkoa da gizakiaren behaketa zuzenik gabe: “Pertsonaren kontenplazio errealik gabe gutxi balio du giza ekintzak pentsatzea eta azaltzea, edo diskur-

22. Ikus *Betrachtungen*, HS I 573

23. Antzeko hitzak erabiliko ditu Humboldték mende baten karaktereaz hitzegiten duenean. Ikus 18Jh, HS I 423.

24. *Plan*, HS I 342

tsoak eta idazkiak deszifratzea.”²⁵. Eta bidaiak, gizaki eta herri ezberdineganako kontaktu zuzena eskuratzen duten hortan, beharrezkoak izango dira Humboldtten antropologian.

Humboldtten bidaien helburua ez da informazio bilketa. Azkeneko hau balitz garrantzitsuena gehiago ikasiko litzateke liburuetatik bidaietatik baino. Baina Humboldttek dioen bezala: “Bizirik gabeko letra hutsetan ez dira nabardura isolatuak bakarrik galtzen, baizik eta batez ere indibiduala denaren konexioa, alegia guztiaren batasuna.”²⁶. Azkeneko hau da ordea Humboldttek bere antropologian bilatzen duena eta aldi berean bidaien laguntzari esker aurkituko duena: “<Bidaien bitartez> izpiritua nazioen zirkunstantzia ezberdinetan murgilduko da eta hauen ohituretan eta bizitzeko era ezberdinetan trebatuko da.”²⁷. Era garbiago batez azalduko digu Humboldttek ideia hau Euskal Herrira bigarren aldiz abiatu aurretik: “Benetan beharrezkoa da atzerriko nazio bat norberaren begiekin ikustea hau benetan ulertzeko eta bere singularitatea jenero bakoitzean azalduko duen giltzarria eskuratu ahal izateko.”²⁸

Humboldtten ahaleginen abiapuntua eta zentzua antropologikoa izanda ez zitzaien jende askori erraza gertatu bere bidaien arrazoia ulertzea. Garbi ikusten dugu hau adibidez Euskal Herrian egondako bere bigarren aldian. Bidaia hau hasi eta laisterrera Humboldttek bere emazteari idatzitako eskutitz batetan honako hau irakurtzen dugu: “Bidaia hau ez du hemen inork ulertzen (...). Pentsa dezakezu beraz hemen herrian bertan gauza xeble bat bezala naizela ikusia.”²⁹

2.1.3. Humboldtten antropologian bidaiatzeak berak duen esanahia bere osotasunean azaltzeko, beharrezkoa dugu oraindik ere bidaien egutegiak bertan duten garrantzia aipatzea. Bidaiatzerakoan ikusitakoa deskribatzeak bidaiatzearen ezinbesteko zati bat osatzen du Humboldtentzat. Hau horrela izatearen arrazoia bikoitza da. Batetik Humboldttek beharrezkoa ikusten du “inpresio guztiak” jaso eta gorde ahal izatea. Gogoratu beharra dago bere ikerketa antropologikoan ez dagoela ezer soberan, eta beraz beharrezkoa dela ahal diren datu gehienak biltzea³⁰. Bestetik Humboldttek beharrezkoa ikusiko du ere behaketarako gaitasuna zorrozten eta lantzen joatea. Berak helburu bezala lortu nahi duen “irudia edo margoa” ariketa baten emaitza bezala kontsidera daiteke eta bertan lagungarri izango zaio deskribatzen ikasten joatea³¹.

2.2. Euskal Nazioa Humboldtten bidaien helburu bezala

2.2.1. Bidaiatzea eta herri ezberdinekin kontaktu zuzenean jartzea beharrezkoa da nazioen konparaketan oinarritzen den ikerketa antropologiko batetan. Hau ez da ordea Humboldtengan erizpide teoriko huts batetan geratuko, eta dakigun bezala berak nazio

25. Musée, HS I 519

26. Humboldt-Schiller 1799-4-26, II 181

27. 18Jh, HS I 468

28. Montserrat, HS V 59

29. Humboldt-Caroline 1801-4-24, II 84

30. Hemen ez da ordea kontua gertakari buruzko informazioa biltzea, edo gutxienez ez da hori prioritariora.

31. Ikus Materialien, GS XIV 361

ezberdinak ezagutu nahi izango ditu bidaien bitartez. Honen harian bakarrik uler daiteke Euskal Herrira etortzeko bere sakoneko arrazoia.

Humboldték euskal gaia, euskaldunak eta azken finean euskal nazioa aztertzeko duen interesa erabat kontzientea da Euskal Herrian egon aurretik. Garbi ikus daiteke hau, hizkuntzarekin lotuta batez ere, Humboldték Schillerré idatzitako eskutitz batetan. Bere lehen bidaia-rako dituen asmoak komentatuz honela idazten dio Euskal Herrian lehenengo aldiz egon baino bost hilabete lehenago: “Puntu txiki baina deigarri bat (...) ‘Biscaya’ da. Gutxienez benetan jatorrizko hizkuntza bat gorde duen Europako herri bakarra da, berriak diren beste <hizkuntza> guztiak baino zaharragoa eta beste inorekin urrutiko antzekotasunik ere ez duena. Hizkuntza honen gramatikak, benetan berezia, maila orokorrean hizkuntzen formazio-ari buruzko gogoeta interesgarrietara garamatza. Nire burutapenekin ondorio batetara iristen banaiz zuri azaltzea pentsatzen dut eta espero dut gustatuko zaizula.”³²

“Die Vasken” izeneko testuak ederki asko erakusten digu bere sarreran nola garatu eta konkretatu zen Humboldtén Euskal Herria eta Hizkuntzarenganako interesa. Berak aitortzen digun bezala ez zuen lehenengo bidaiaren denborarik izan euskal gaian nahi zuen bezain beste sakontzeko, baina lehen egonaldi honek bere interesa areagotu zuen. Honela ba Parisera itzuli ondoren lehen bidaiaren aurretik hasitako euskal gaiei buruzko irakurketekin jarraitu zuen. Hortik urte batetara Humboldt berriz etorri zen Euskal Herrira bertako hizkuntza eta nazioa ikertzeko asmoz. Bere ahalegin guztien helburua honako hitz hauekin laburtzen digu Humboldték: “Obligazio bat bezala ikusten dut <bildutako> material guzti hau alperrik galtzen ez uztea, eta ondorioz lagundu nahi nuke ahal dudan neurrian orain arteko Euskal Hizkuntza eta Nazioaren kontzeptua zuzentzen eta zehazten.”³³

2.2.2. Antropologiaren ikerketa konparatu batetan nazio guztiek bere lekua badute ere, egia da Humboldték interes berezia eskeintzen diola euskaldunen nazioari. Honen sakoneko arrazoia berak Euskal Herrian eta Hizkuntzan aurkitzen duen berezkitasunean eta jatorrizko-tasunean oinarritzen da.

Lehen momentutik garbi ikusten du Humboldték arazoak arazo euskaldunek euren “karaktere nazionalaren singularitatea” eta aldi berean “askatasun eta independentziaren izpiritua” gorde ahal izan dutela³⁴. Honek ez du ordea Humboldtén ustetan euskaldunen atzerapen bat suposatu. Jatorrizko kultura eta hizkuntza mantentzeaz gain euskaldunek ilustrazio eta zibilizazio propio bat landu dute. Konbinazio hau da hain zuzen Humboldték Euskal Herrian harriduraz aurkituko duena: “Euskaldunak ez dira mendietako artzai gixajo batzu.”³⁵ Sintesi moduan honela azaltzen du Humboldték euskaldunengan ikusitako berezkitasun eta jatorrizkitasun hori: “Hizkuntzak, konstituzioak, ohiturak, aurpegi formazioak, hitz batetan, inguratzen duen guztiak, bere lurraren itxura barne, ezaugarritzen du euskalduna jatorrizko nazio edo tribu (Völkerstamm) garbi eta diferentziatu bat bezala. Bere singularitatea, sakonean txertatuta daukana, kanpoko kausa eta zirkunstantzietatik erabat independentea da.”³⁶

Aipatutakoarekin garbiago ikus daiteke zergatik Humboldték arreta berezia eskeiniko dion euskal gaiari. Honetarako berriz ere gogoratu beharrekoa da Humboldtén interes honen

32. Humboldt-Schiller 1799-4-26, II 181

33. DV, HS II 429

34. Ikus DV, HS II 419

35. DV, HS II 425

36. DV, HS II 426

abiapuntua, helburua eta baita ere eremua, bere antropologia konparatuan bakarrik aurkitu daitekeela. Kontua ez da euskaldunek balio berezirik dutenik, gutxienez ez beste nazioetako gizabanakoek baino gehiago, baizik eta euskaldunek Humboldtten proiektu antropologiko konkretuan balore konparatzaile berezi bat dutela. Konparaketan oinarritzen den ikerketa antropologiko batetan aberasgarria da elkarren artean oso ezberdinak diren nazioak aztertzea. Horrela, ba, Euskal Nazioaren eta Hizkuntzaren apartekotasuna eta honek antropologia konparatu batetan eduki dezakeen garrantzia da Humboldtten euskal gaiarenganako erakustean duen arreta bereziaren azken arrazoa.

2.2.3. Humboldtten euskal gaiak arduratzerakoan duen asmoa eta kontzientzia argitzeko asmoz adibide bat ekarriko dugu orain lerro hauetara. Humboldtten “Euskaldunak” nahi ditu aztertu, baina ez nola nahi, baizik eta “nazio” bat osatzen duten heinean eta neurrian. Garbi ikus daiteke hau bere bidaiei buruzko testu garrantzitsuenaren izenburuan bertan. Humboldtten “Die Vasken” idazten du, garai hartako zein gaurko ohizko ortografiari jarraituz “Die Basken” idatzi beharko balu ere. Honen arrazoiaren azalpena testu honen hasieran bertan eskeintzen digu ohar batetan. Humboldtten dioen bezala Euskaldunak bere osotasunean izendatzeko hitz bateratu bat falta da. Frantsesek “Biscayens” eta “Basques” hitzak erabiltzen dituzte, baina lehenengoa Espainia aldeko euskaldunak bakarrik eta bigarrena Frantzia aldeko euskaldunak bakarrik izendatzeko. Espainolek bere aldetik “provincias Bascongadas” espresioa erabiltzen dute baina hau Espainia aldeko euskaldunak bakarrik izendatzeko. Euskaldunak beraien artean berriz probintzia ezberdinak aipatuz ezagutzen dira. Arazo hau dela eta Humboldtten honako hau erabakiko du: euskaldun guztiak adierazteko “Vasken” hitza erabiliko du, Espainia aldekoak adierazteko “Biscayer” eta Frantzia aldekoak adierazteko “Basques”. Beharrezkoa denean probintzi ezberdinak aipatuko ditu³⁷. Humboldtten beraz erizpide kulturaleri jarraitzen die, eta ez politikoei, bere azterketaren objektua mugatu nahi duenean. Honekin garbi erakusten digu euskaldunen “nazioa” dela berak aztertu nahi duena.

2.3. Euskaldunen ikerketa antropologikoa Humboldtten bidaietan

2.3.0. Bidaiei buruzko testuetan Humboldt behatutako guztia deskribatzen saiatuko da, sarritan bere gogoetak ere tartekatzen dituelarik. Testu hauetan ez dio ordea Humboldtten aldezturik plan edo eskema bati jarraitzen. Bidaiei ibilbidea bera da berak idazten duenaren gida bakarra. Dena den gu hemen Humboldtten Euskal Herrian egindako ikerketa antropologikoa eskema tematiko baten arabera laburtzen saiatuko gara. Bertan Humboldtten arreta berezia merezi izan duten bost gai nagusi aipatuko ditugu: fisionomia, historia, herri kultura, organizazio sozio-politikoa eta hizkuntza.

2.3.1. Ikerketa fisionomikoaren helburua pertsonen espresioa aztertzea eta interpretatzea da. Humboldtten garbi dago fisionomiaren ikerketa hutsak ezin duela gizakiaren karaktere indibiduala erabat ulertzerazi, baina bere ustetan “bitarteko laguntzaile” garrantzitsu bat izan daiteke antropologia konparatuan³⁸. Euskal Herrian burututako ikerketari dagokionez Humboldtten kanpoko itxuraren azterketa ez da gizakiei buruzkoa bakarrik izango, baizik eta baita naturari buruzkoa. Hau da, gizakien fisionomia ikertzen duen bezala Humboldtten naturaren fisionomia ikertuko du ere. Humboldtten ahalegin guztien helburua gizakia bera bada ere, beharrezkoa ikusten du berak gizakiaren kontestu fisiko-naturala

37. Ikus DV, HS II 418-419. Gogoratu beharra dago Nafarroako euskaldunak ez zituela Humboldtten ia ezagutu. Bertan Orreagan bakarrik egon zen eta gainera oso denbora gutxian.

38. Ikus 18Jh, HS II 469

aztertzea gizakia bera osotasunean ulertzeko. Horrela, ba, Humboldt "herrialdearen karakterea" deskribatzen saiatuko da Euskal Herriko natura behatuz. Bertan aurkitzen duen ezaugarririk garrantzitsuena "kontrastea" izango da³⁹. Gizakiaren espresioari, alegia, euskaldunen fisionomiari dagokionez, Humboldték zalantzarik gabe "fisionomia nazional" batetaz hitzegingo du. Ondorio honetara bere garaiko euskaldunak behatu, deskribatu eta beste herrietako jendeekin konparatu eta gero iritsiko da Humboldt. Besteak beste naturak eta lanak euskaldunen fisionomian duten eragina azpimarratuko du berak, eta "baserritarrengan" ikusiko du batez ere euskal nazioaren muina⁴⁰.

2.3.2. Ikerketa historikoari dagokionez gogoratu beharra dago lehenik historiari berak Humboldtén antropologia konparatuan duen garrantzia. Gizakiaren historizitatea bere ikerketen abiapuntu bezala hartzen duen momentutik garbi egongo da Humboldtentzat beharrezkoa dela herri baten historia aztertzea herri konkretu horren "karakterea" aztertu eta ulertu ahal izateko. Honen ondorioz eta euskal ikerketari dagokionez euskaldunen historia ahalik eta hobekien ezagutzen saiatuko da Humboldt. Bertan berak aztertzen duen aspekturik garrantzitsuena Espainia aldeko euskal probintziak Gaztelarekin edukitako erlazio historikoa izango da. Interpretaziorik egiten saiatu gabe bere asmoa gertakari ezberdinak objetiboki kontatzea izango da, behin ondo informatu eta gero⁴¹. Beste aspektu historiko batzuk ere merezi dute Humboldtén arreta. Guk bi baino ez ditugu aipatuko. Batetik Espainia eta Frantziaren arteko azkeneko gerrak⁴² Euskal Herriaren edukitako ondorioak aztertuko ditu. Bertan euskaldun frantses eta euskaldun espainolen arteko erlazioak nolakoak diren aztertzen saiatuko da ere. Bestetik Frantzia aldeko euskal probintzien eta iraultza frantsesaren arteko erlazioa azalduko du. Zalantzarik gabe adieraziko du berak iraultzak euskaldunei mesede baino kalte gehiago ekarri diela. Historiaren atal honekin bukatzeko aipatu bakarrik Humboldték beharrezkoa ikusten duela euskaldunek berek idaztea bere historia.

2.3.3. Herri kultura da Humboldték euskaldunengan aztertzen duen beste eremu bat. Herri baten ohiturak ez dira bigarren mailako anekdotak Humboldtentzat, baizik eta talde konkretu batek humanitatea konkretatzeko, errealizatzeko eta adierazteko behar dituen manifestazio kulturalak. Hau honela izanik antropologia konparatuak interes berezia eskeini behar die ohitura ezberdinei, eta hau da hain zuzen Humboldték Euskal Herrian egingo duena. Batetik lanak euskaldunen bizitzan duen garrantzia azaltzearekin batera, hauen lan mota ezberdinak deskribatzen saiatuko da. Bestetik dibertsioak euskaldunen artean betetzen duen lekua azpimarratzearekin batera, hauen ogeta edo dibertsio ezberdinak deskribatuko ditu ere, batez ere pilota, dantza, kantuak eta bertsoak, eta baita ipuinak eta kontaerak. Gogoratu honekin batera Humboldtén arabera euskaldunak bai lanerako eta bai dibertsiorako daudela beti prest. Herri bakoitzak erakusten diona deskribatuko du Humboldték zehaztasunez, eta konparaketari esker antzekotasunak eta diferentziak zeintzuk diren adieraziko ditu. Bukatzeko bakarrik esan Humboldték orokorrean beharrezkoa ikusten duela herri kultura indartzea humanizazio prozesua gauzatzen joateko⁴³.

39. Ikus DV, HS II 444, 477; C, GS III 126-127; Tb2, GS XV 384-385. Hau Humboldték itsaso eta mendiaren artean, mendí eta bailaren artean eta landu gabeko lurren eta landutakoaren artean ikusiko du.

40. Ikus Tb1, GS XV 128; C, GS III 128-129; DV, HS II 435, 544

41. Ikus adibidez Arabari buruz DV, HS II 526-531

42. Konbentzioaren gerra: 1793

43. Ikus C, GS III 128; DV, HS 561

2.3.4. Euskaldunen organizazio sozio-politikoak Humboldtten interesa biziki piztuko du, honi buruz berak idatzitako orrien kopuruak bakarrik garbi erakusten digun bezala. Herrialde bakoitzaren historia kontutan hartzen duelarik Humboldttek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako fueroak sakonki aztertuko ditu. Hauen artean diferentziak antzemango ditu, batez ere garapen historikoari dagozkionak, baina sakonean dagoen antzekotasuna ere garbi ikusiko du⁴⁴. Nafarroan ez du Humboldttek ikerketa zuzenik egingo, eta iparraldeko euskal probintzietan ez du laborpen bat baino eskeiniko, alegia, iraultza aurretik probintzi hauetan organizazio sozio-politikoak izan zenaren laborpena. Bukatzeko Humboldtten euskaldunen organizazio sozio-politikoak deskribatzeko erabiltzen dituen kontzeptu batzu bakarrik gogoratu ditugu. Humboldtten “demokrazia perfektuaz” hitzegingo du “sistema errepresentatiboari” kontrajarriz; “baserritarren konstituzioaz” arituko da “zaldunen konstituzioari” kontrajarriz; eta Lekeition adibidez “arrantzaleen errepublika” batetaz hitzegingo du⁴⁵. Hitz batetan laburtuz esan daiteke Humboldt oso egokia iruditu zitzaioela euskaldunen organizazio sozio-politikoak.

2.3.5. Humboldtten Euskal Herrian burututako ikerketa antropologikoaren aurkezpenarekin bukatzeko hizkuntzaren aspektua dugu oraindik aipatu beharrekoa. Berak aitortzen digun bezala hizkuntza da bere helburu nagusienetako bat Euskal Herrira bigarren aldiz etortzerakoan. “Bidaia honetan hizkuntza zen nire atentzioaren punturik garrantzitsuena.”⁴⁶ Dena den hizkuntzaren gaia batez ere bidaiak bukatu eta urte batzuetara landu zuen, lehen esan eta gero azalduko dugun bezala. Hemen guk Humboldtten bidaietan zehar hizkuntzari buruz egindakoa bakarrik aipatu dugu. Humboldtten hasieratik euskara ikasteko laguntza bilatu zuen pertsona ezberdinekin kontaktoan jarri. Hauen artean Durangon apaiz zen Pablo de Astarloa dugu garrantzitsuena. Honekin ikasitakoa beti edukiko du gogoan Humboldtten, eta oraindik urte askotara ere begirune haundiz hitzegingo du Astarloari buruz⁴⁷. Euskal Hizkuntzari berari dagokionez hiru gauza aurkitzen ditugu bidaiari buruzko Humboldtten testuetan, alegia, ergatiboari buruzko zenbait erreflexio, euskalki ezberdinei buruzko zenbait ohar eta hitz ezberdinei buruzko etimologiak⁴⁸.

3. BIDAIEN ONDORENGO HUMBOLDTEN EUSKAL IKERKETAK ETA HAUEN ERAGINA BERE ANTROPOLOGIAN

3.1. Humboldtten euskal ikerketen ibilbidea bidaien ondoren

3.1.1. Lehen aipatu dugun bezala Humboldtten euskal gaiari buruzko material ezberdina biltzen joan zen. Hauen artean hiztegiak, gramatikak, literaturazko obrak, testu ezberdinen itzulpenak, dantzen deskribapenak, abestiak, musika e.a. ditugu. Bildutako guzti hau denborarekin lantzen joan bazen ere, orokorrean Humboldtten nahi zuena garbi zeukan hasiera hasieratik. Eta urteak pasa hala bere proiektuak formulazio ezberdinak ezagutzen baditu ere ez da sakonean gauza haundirik aldatuko.

44. Ikus DV, HS II 464-469, 532-540, 589-601, 612-614

45. Ikus DV, HS II 466, 589, 604

46. DV, HS II 429

47. Ikus Berichtigungen, GS III 268

48. Ikus adibidez: C, GS III 131; DV, HS II 490-491; TB2, GS XV 439

3.1.2. Euskal gaiari buruzko Humboldtten egitasmoa garai ezberdinetan idatzitako bi testutan aurkitzen dugu zehaztuta batez ere.

Bere lehenengo proiektu orokorra 1801-1802 urte inguruan idatzitako testu labor batzuetan aurkitzen dugu. Hauek "Fragmente der Monographie über die Basken" izenburuarekin dira ezagunak. Testu zati txikiak dira hauek eta denetara ez dira asko, baina hala ere garrantzi haundikoak dira. Idazki hauetan Humboldttek burutu nahi duen euskal ikerketaren lehenengo eskema orokorra eskeintzen digu, eta honetaz gain etorkizunean arduratuko duten hizkuntzaren arazoari buruzko bere lehen erreflexioak aurkituko ditugu bertan ere. Euskal gaiari dagokionez Humboldttek hemen garbi adierazten du batetik Euskal Hizkuntza eta Euskal Nazioaren arteko erlazioa azaltzeko beharra, eta bestetik Euskara zientifikoki aztertze-ko eta metodologikoki aurkezteko beharra. Hizkuntzari buruzko erreflexio orokorrak ere eskeiniko dizkigu Humboldttek. Adibidez hizkuntzak berak giza naturan duen oinarritzko lekua azpimarratuko du, eta honekin batera hizkuntza, historia eta filosofiaren ikerketen arteko loturaren beharra aldarrikatuko du.

1812. urtean Humboldttek bere euskal gaiari buruzko proiektu zaharra berrituko du "Ankündigung einer Schrift über die Vaskische Sprache und Nation" izenburua daraman testu batetan. Bertan Humboldttek antropologo eta filosofo bezala duen asmo orokorra adieraziko digu lehenik, alegia, giza dibertsitatea aztertuz giza espeziea aztertzearena. Bere ustetan gizakiaren dibertsitatea aztertuz eta ezagutuz bakarrik izango da posible giza espeziearen batasunaz jabetzea. Honetarako Humboldttek beharrezkoa ikusiko du Nazioen, Hizkuntzen eta Historien ikerketak burutzea eta hauen arteko loturak bilatzea. Planteamendu orokor honetatik abiatuz Humboldttek euskal gaia ikertzeko jarraitu nahi duen eskema erakutsiko digu ondoren. Bertan hiru gauza ikusiko ditu beharrezkoak: lehenik herriaren eta euskaldunen deskribapen orokor bat; bigarrenik hizkuntzari buruzko ikerketa bat; eta hirugarrenik ikerketa prehistoriko eta filosofiko bat.

3.1.3. Humboldtten proiektuaren bi formulazio hauek garbi erakusten badigute ere bere asmoa euskal gaiari buruzko monografia handi bat idaztea zela, egia da ez zuela horrelakorik burutu. Bere okupazio politikoak zirela eta, ezin izan zuen era jarraitu batetan gai honi buruz lan egin, eta behin eta berriz atzeratu behar izan zuen pentsatutako ikerketa. Dena den euskal gaiari buruzko obra sistematiko bat idatzi ez bazuen ere, egia da neurri handi batean Humboldttek planteatutako atal guztiak landu zituela. Euskaldunen eta Euskal Herriaren deskribapen orokorrari dagokionez "Die Vasken "(1805-1806) testua dugu garrantzitsuena, ikusi dugun bezala. Euskal Hizkuntzari buruz idatzitako testuen artean garrantzitsuena "Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweiten Bandes des Mithridates über die kantabrische oder baskische Sprache"(1816) dugu. Eta ikerketa historikoari dagokionez euskal gaiari buruz idatzitako bere azkeneko lana dugu, alegia, "Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Hispaniens vermittelt der Vaskischen Sprache"(1821).

3.2. Euskararen azterketaren garrantzia Humboldtten ikerketa linguistikoen hastapenetan

3.2.1. Euskarak Humboldtten ikerketa linguistikoan izan duen garrantzia ulertzeko beharrezkoa dugu lehenik jakitea zer nolako interesa izan zuen berak aurretik hizkuntzaz. Eta has-teko esan beharra dago jadanik 1795-1796 urteetan idatzitako testu batetan, "Über Denken und Sprechen" delakoan alegia, Humboldt biziki interesatzen dela hizkuntzaren filosofiaz eta linguistika orokorrak. Hizkuntzari buruzko bere erreflexio hauek ordea nahiko teorikoak ziren,

eta bere antropologia lantzen joan zen heinean geroz eta garbiago joan zen ikusten hizkuntzari buruzko bere gogoetak edukiz bete behar zituela. Honela, ba, Humboldt bere antropologian gizaki konkretuak eta historikoak aztertzearen beharra formulatzen dijoan neurri berdinean, hizkuntza konkretu ezberdinak aztertzearen beharraz joango da jabetzen. Honen harian bakarrik uler daiteke zergatik Humboldt Euskal Hizkuntzaz biziki interesatu zen Parisen zegoelarik honen berri jakin eta berehala. Europatik irten gabe Humboldt aukera ezin hobea zeukan egitura ezberdineko hizkuntza bat aztertzeko eta honela bere ordurarteko esparru linguistikoa zabaltzeko⁴⁹.

3.2.2. Euskararen ikerketak Humboldti ekarri dion gauzarik garrantzitsuen perspektiba aldaketa bat izan da. Honi esker bere hizkuntzenganako interes antropologikoa ikerketa linguistiko batetan konkretatuko du. Bere antropologia konparatua zehazten dijoan neurrian Humboldt geroz eta garbiago ikusiko du hizkuntza konkretuen azterketak bere proiektu antropologikoa eduki dezakeen garrantzia. Horrela ba nazio ezberdinak bere osotasunean aztertzea eta elkarren artean konparatzea denez bere antropologiaren helburua, beharrezkoa ikusiko du Humboldt hizkuntza ezberdinak ere ikastea, hauen bitartez eskuratu bait dezake herri baten produkzio kulturalaren zati haundi bat. Bere antropologia konparatuan Humboldt erakusten duen hizkuntzenganako interesa ondorioz literaturara egongo da zuzenduta batez ere. Euskal Herrira etorri eta Euskal Hizkuntza ikasten hasterakoan ordea Humboldt garbi ikusiko du, literaturaz aparte, posible eta beharrezkoa dela hizkuntza berez den horretan ikertzea. Alegia, idazleek hizkuntza batekin edo batetaz egiten dutena bigarren maila batetan utziz Humboldt orain hizkuntza bakoitzak herri bakoitzean duen garapen "naturalaz" arduratzearen beharra ikusiko du⁵⁰. Honen ondorioz Humboldt Euskara eta beste hizkuntzak sakoneko elean aztertu nahi izango ditu, susmatzen bait du hizkuntzaren egiturak eragin handia eduki dezakeela gizabanako zein giza taldeetan⁵¹. Ikusi daitekeen bezala euskal gaiari buruzko Humboldtten ikerketak garrantzi handia izan du aipaturako perspektiba aldaketa horretan.

Ez da ordea perspektiba aldaketa bat bakarrik izan euskal ikerketak Humboldti ekarri diona. Euskara aztertzerakoan Humboldt lehenengo aldiz eramango du praktikara bere hizkuntzen ikerketa konparatuaren metodoa, bertan historia, etnologia eta linguistika elkarrekin lantzen dituelarik. Eta honek eredu bezala balioko dio gainuntzerako beste ikerketetan Humboldt aitortuko duen bezala: "Ikerketa linguistikoaren zati honen lehen esperientzia honi <Euskarari buruz ari da> jarraitu nion ondorengoetan."⁵² Bainan esan beharra dago ere Humboldtten euskarari buruzko ikerketa ez zela hasierako esperientzi edo adibide aislatu batetan gelditu. Euskararekin zerikusi zuzena ez duten testu askotan hizkuntza honi buruzko oharra sarritan aurkitzen ditugu. Zalantzarik gabe esan daiteke euskarari buruzko ikerketa Humboldtentzat abiapuntu garrantzitsu bat izateaz gain, erreferentzi puntu sendo bat izan dela ere bere ikerketa linguistiko gutzian⁵³.

49. Ikus honetarako Mitxelena 1973, 108-109

50. Ikus honetarako Bossong 1984, 174

51. Antzeko hitzak irakurtzen ditugu Humboldt 1830-1835 urte inguruan idatzitako testu baten izenburuan: "Ueber die Verschiedenheit des menschlichen Sprachbaues und ihren Einfluß auf die geistige Entwicklung des Menschengeschlechtes".

52. Verschiedenheiten, HS III 176-177

53. Ikus honetarako Flitner eta Gielen komentarioa: HS V 614-615

3.3.3. Interesgarria izan daiteke orain 1801-1802 urte inguruan idatzitako “fragmentuak” berriz ere gogora ekartzea. Lehen esan dugun bezala testu hauek garrantzi haundikoak dira Humboldtten ikerketa linguistiko guztien oinarrian kokatzen bait dira. Humboldtten euskarari buruzko ikerketak bere linguistikan izan duen garrantzia hobeto ulertzeko asmoz, guk orain bertan aurkitzen dugun testu zati bat ekarriko dugu. Honela idazten du Humboldttek Euskal Herrian egon eta hilabete batzuetara bakarrik: “Hizkuntza, eta ez orokorrean bakarrik, baizik eta bakoitza partikularrean, pobreena eta inkultoena izanda ere, erreflexio zorrotzenetarako aztergai duin bat da berez (...). Hizkuntza ezberdinak ez dira gauza beraren deitura ezberdinak bakarrik, baizik eta honen ikuskera edo kontzepzio ezberdinak ere (...). Hizkuntzen multiplizitateari esker zuzenean haunditzen da munduaren aberastasuna eta baita hemen ezagutzen dugunaren multiplizitatea; aldi berean giza existentziaren ingurunea zabaltzen zaigu eta pentsatzeko eta sentitzeko era berriak aurkezten zaizkigu ondo determinatutako karaktere errealean forman.”⁵⁴ Gogoratu beharrekoa da ere Humboldttek “fragmentu” hauetan “hizkuntza guztien enziklopedia sistematiko”⁵⁵ bat osatzeaz hitzegingo duela lehenengo aldiz. Helburu honekin saiatu zen bera 400 bat hizkuntza ezberdinei buruzko informazioa biltzen⁵⁶.

3.3. Euskal ikerketatik antropologia linguistikora Humboldtengan

3.3.1. Humboldttek euskal gaiari buruz egindako ikerketak garrantzi haundia izan du bere ahalegin linguistikoak zehazterakoan ikusi dugun bezala. Gogoratu beharrekoa da ordea berriz ere Humboldtten interes intelektuala beti kezka antropologiko batetan oinarritzen dela. Horrela, ba, euskal gaiak Humboldtengan hizkuntzalaritzarako gogoia piztu badu, bere proiektu antropologikoan zerbait aldatu beharra ikusi duelako da. Humboldtten helburu orokorra beti ere gizaki indibidualaren ezagutza eta humanizazioa indartzea izango da. Baina euskal gaia aztertzen hasterakoan garbi ikusiko du berak bere ikerketa antropologikoa hizkuntzaren eta hizkuntzen ikerketa batetan oinarritu behar duela. Orain gu pausu honetan euskal gaiak izan duen garrantzia azaltzen saiatuko gara.

3.3.2. Humboldt euskal gaiak arduratzen hasterakoan landu berria dauka bere antropologia konparatuaren proiektua. Honi jarraituz Euskal Herriaz interesatuko da, eta bertan planteatutako eskema edo metodo konparatzailearen arabera, Humboldtten herri honen ikerketa antropologiko bat burutu nahi izango du. Guztiaren helburua beraz Euskal Nazioaren ikerketa enpiriko-filosofiko bat egitea da, eta azken finean honen “irudi edo margo” egoki bat eskeintzea. Euskal Nazioaren muinera iristeko Humboldtten lehen aipatutako eremu ezberdinak landuko ditu herri honetara etortzerakoan, alegia, fisionomia, historia, herri kultura, organizazio sozio-politikoak eta hizkuntza.

Euskaldunen ikerketa antropologikoa aurrera daraman neurrian ordea, Humboldt geroz eta garbiago joango da ikusten bere lanerako eskema antropologikoa hutsune garrantzitsuak erakusten dituela. Batetik konturatuko da ez dela nahiko gizakiaren indibidualitatearen azterketa berak planteatzen duen bezalako nazioen ikerketa konparatu batetan oinarritzea. Honekin indibidualitatearen arazoa gizabanakoarengan planteatu beharrean nazioan planteatzen da, baina arazoaren leku aldatze honekin bakarrik ez da indibidualitatea bera argitara ekarriko⁵⁷. Bestetik nazio baten eremu guztiak aztertzearen beharra garbi ikusten jarraitzen

54. Fragmente, HS V 110-111

55. Fragmente, HS V 106

56. Ikus Mueller-Vollmer-ek dakarren aurkibidea. Mueller-Vollmer 1993, 454-460.

57. Ikus honetarako Menze 1965, 204

badu ere, Humboldttek garbi ikusiko du ez dela hori nahiko haren sakoneko giltzarrira iristeko. Hitz batetan esan daiteke Humboldttek gizabanakoaren eta nazioaren individualitatea oinarritzen duen elementu artikulatzaile bat bilatu beharra ikusten duela. Eta hau da hain zuzen hizkuntzan aurkituko duena.

Humboldt pixkanaka joango da konturatzen da Euskal Herria ikertzeko beharrezkoa duela Euskal Hizkuntzari arreta berezia eskeintzea. Hasiera batetan ordea berak Euskal Hizkuntzarenganako duen interesa bere jatorrizko antropologia konparatuak gidatuko du. Alegia, hizkuntzaren elementuaren azterketa Humboldtten nazioen ikerketa antropologikoaren zati bat baino ez da izango. Kuantitatiboki izan daiteke hizkuntza herri baten beste elementuak baino garrantzi gehiagokoa, baina kualitatiboki ez da ezberdina. Hau da, nazio bat osatzen duten elementu ezberdinen artean hizkuntza horietako bat baino ez da izango, eta Humboldtten antropologiak beste elementu horiek aztertzen dituen bezala hizkuntza ere aztertuko du. Ikerketa aurrera dijoan heinenan ordea Humboldttek garbi ikusiko du Euskal Hizkuntzak sakoneko garrantzia duela Euskal Nazioaren egiturari, alegia, ez dela hizkuntza beste elementuen pareko, baizik eta guzti hauek bateratzen eta artikulatzen duen elementua bera. Euskal Hizkuntzak nortasuna eta identitatea ematen dio Euskal Herriari, eta hau desagertuz gero nazioaren singularitatea bera ere desagertuko litzateke. Euskaldunentzat etorkizun beltza ikusten duelarik ondorengo hitz hauekin adierazten digu Humboldttek ideia hau: "<Kanpo eraginek> geroz eta gehiago baztertzen dute <euskal> hizkuntza eta honekin batera hala beharrez galtzen da hura <singularitate nazionala>." ⁵⁸

3.3.3. Guzti hau ordea ez da euskaldunen ikerketan bakarrik geratuko. Humboldttek berehala ikusiko du euskal ikerketan aurkitutakoa, alegia Euskal Hizkuntzaren garrantzia, orokorrean bere proiektu antropologikoan aplikatzeko aukera eta beharra. Helburu nagusia ez da aldatuko, hau da, Humboldttek gizabanako eta herrien ezagutza eta humanizazioa bultzatu, eta hauen karaktere individualak aztertu, ulertu eta irudikatu nahi izango du beti ere. Orain ordea Humboldttek beharrezkoa ikusten du guzti hau hizkuntza ezberdinen ikerketa batetan oinarritzea. Gizabanakoaren, nazioaren eta hizkuntzaren problematikak beraz gurtzatu egingo dira orain, eta honekin Humboldttek orientazio berri bat emango dio bere antropologiari. Laburtuz esan daiteke euskal ikerketei esker Humboldtten linguistikak leku bat irabaziko duela bere antropologian edota bere antropologiak hizkuntzen azterketan konkretatuko duela bere metodoa ⁵⁹.

Bukatzeko euskal ikerketak Humboldtten antropologian izan duen eragina zehazten eta ulertzen lagunduko digun C. Menzeren komentario bat ekarriko dugu bere osotasunean orri hauetara. Sintesi moduan horrela dio autore honek: "Euskaldunei buruzko ikerketarekin Humboldtten hizkuntz-filosofiarako biraketak bere bidea aurkituko du. Hizkuntz-filosofiaren konstrukzio indartsurako oinarria jarria dago. Oinarritzko ideia erabakiorrak ez daude erabat eta garbi landuta, baina bai bere muinean begibistan jarrita. 1. Gizakia hizkuntzari esker bakarrik da gizaki. 2. Gizakiaren hizkuntzarako disposizioa eta soziabilitaterako beharra elkarrekin datoz. 3. Hizkuntza bakoitzak bere mundu ikuskera dauka. Munduaren kontzepzioa aldakorra da, alegia, bera konzebitzen duen hizkuntzaren arabera. Hizkuntza Ni eta Munduaren arteko bitartekaria da. 4. Hizkuntzan dauka gizakiak humanizazioarako, bere mundu ikuskera zabaltzeko eta bere Ni-a lantzeko aukera, baina baita bere auto-ulerkuntza burutzeko aukera. 5. Hizkuntza elementu humanizatzaile bezala beti da "Energiea", izpiritua-

58. DV 422. Gogoratu Humboldttek uste zuela Euskara ehun urte barru desagertuko zela. Ikus DV, HS II 423.

59. Ikus honetarako Menze 1965, 204, 209

ren tentsio (indar) iraunkorra. Hartz pasibo hutsa ez den, baizik eta sujetuaren espontaneitaterik sortzen den ulertzea ere berari dagokio.”⁶⁰

4. ONDORIOA

4.1. Sarreran planteatutako galderei erantzun ondoren azkeneko puntu honetan ikusitako guztia laburtzen saiatuko gara lehenik. Gure aztergaia Humboldtren euskal ikerketa izanik, orrialde hauen helburua ikerketa hori haren antropologiaren argitan ulertzea izan da. Honetarako zergatik Humboldt Euskal Herriaz interesatu zen jakin nahi izan dugu aurrena. Ondoren Humboldtren Euskal Herriaren egindakoa aztertu dugu. Eta bukatzeko euskal ikerketak Humboldtzi zertarako balio izan dion azaldu dugu.

Humboldt Euskal Herrira etortzearen arrazoia ulertzeko beharrezkoa izan dugu azaltzea hark zeukan antropologiaren kontzeptzioa. Honela jakin dugu Humboldtren Euskal Herrira lehenengo aldiz abiatu aurretik ere, berak “antropologia konparatua” deitzen zuen proiektu zehatz bat landuta zuela. Gizakiaren historizitatea abiapuntu bezala hartuz gizakiaren indibidualitatea izango da Humboldtren bere antropologiarekin ulertu nahi izango duena. Gizaki konkretua denez honen aztergaia ezin izango du Humboldtren gizakia zientifikoki ezagutu, eta ondorioz berak antropologiaren aspektu humanizatzailea indartuko du. Metodoari dagokionez konparazioan oinarrituz gizakiaren irakurketa enpirikoa eta espekulatiboa egiten saiatuko da Humboldtren antropologia. Hau da, karaktere indibidualak diren bezala ezagutu, eta aldi berean hauek izatera iritsi daitezkeena aurkeztu nahi izango du. Lehenengo puntuari amaiera emateko nazioak Humboldtren antropologia konparatua duen garrantzia ikusi dugu.

Hau ikusi ondoren Humboldtren Euskal Herriaren burututako ikerketa antropologikoa eza gutzen saiatu gara, eta honetarako lehenik bidaiatzeak berak haren antropologian duen garrantziaz arduratu gara. Garbi ikusi dugu honela bidaiak Humboldtren ikerketan ezinbesteko bitartekoak direla, hauei esker bakarrik bait da posible gizaki eta nazio ezberdinak zuzenean ezagutu ahal izatea, bere antropologia konparatuak eskatzen duen bezala. Hau oinarritzat hartuz ikusi dugu nola Humboldtren euskaldunak kontzienteki bilatu dituen, hauen-ganako berak erakusten duen interes biziaren arrazoia Euskal Nazioan eta Hizkuntzan aurkitzen duen izakera autoktonoan oinarritzen delarik. Honen ondorioz Humboldtren euskaldunen Hizkuntza eta Nazioa bere ikerketa antropologikoaren objektu bezala kontsideratuko ditu, bere bidaietan hauen fisionomia, historia, herri kultura, organizazio sozio-politikoa eta hizkuntza aztertzen dituelarik.

Azkenik Humboldtren euskal ikerketek bere pentsamenduan izan duten eragina zehazten saiatu gara. Lehenik bidaietatik itzuli eta gero euskal gaiari buruz egindako ikerketen aurkezpen bat egin dugu. Hau oinarri bezala hartuz bi gauza argitu nahi izan ditugu. Batetik Euskal Hizkuntzaren azterketak Humboldtren ikerketa linguistikoen hastapenetan edukitako eragina ikusi dugu. Euskara ikasterakoan Humboldtren garbi ikusiko du hizkuntza berez, literaturaz aparte, aztertu beharrezkoa dela. Aldi berean hizkuntzen egiturak eta honen dibertsitateak duen garrantziaz jabetuko da. Bestetik Humboldtren ikerketa linguistikoa eta bere antropologiaren arteko lotura zehazten ahalegindu gara. Euskal ikerketak nolabait erakutsi dio Humboldtzi beharrezkoa dela antropologiaren erdigunea edo aztergaia hizkuntzan kokatzea, hau bait da gizakiaren eta nazioaren eremu guztien elementu artikulatzailea. Honela, ba, kezka antropologiko berbera mantentzen badu ere, Humboldtren orain hizkuntzan ikusiko du

60. Menze 1965, 216

bere ikerketa konkretatzeko eremua. Biraketa honetan Humboldtten euskal ikerketak duen garrantzia zehazten saiatu gara.

4.2. Hitz gutxitan honako hau da argumentazioaren haria: "Antropologia Konparatu" bat egin nahian Humboldtten Nazio ezberdinak ezagutu eta aztertu nahi izango ditu, hauen artean Euskal Nazioa aurkitzen delarik; Euskal Herrira etorrita eta bertako Nazioa aztertzen hasita Humboldt konturatuko da beharrezkoa dela bere ikerketa Euskal Hizkuntzari buruzko ikerketa batetan oinarritzea; eta esperientzia konkretu honetatik abiatuz Hizkuntzak orokorrean giza-banako eta giza talderako duen garrantziaz jabetuko da, eta ondorioz bere ikerketa orain Antropologia Linguistiko baten moduan ulertuko du Humboldtten.

4.3. Guztiarekin bukatzeko komentario muduko ohar bat eskeiniko dugu. Humboldtten antropologiaren garapenean euskal gaiak bere garrantzia badu ere, ezinezkoa da esatea bi Humboldt kontrajarri ditugunik, bat Euskal Herrira etorri aurretik eta bestea ondoren. Gizakia da beti Humboldtten kezka nagusia eta zentzu honetan Humboldt beti izan da antropologo. Are gehiago, Humboldtten Euskal Herritik itzuli eta gero ere "antropologia konparatua" egiten jarraituko du. Euskal ikerketekin aldatu dena konparaketaren objektua izan da bakarrik, hau da, lehen konparatu nahi zuena nazioak baziren orain hizkuntzak izango dira. Humboldtten pentsamendu antropologikoaren garapena prozesu baten moduan uler daiteke. Prozesu honetan Humboldt bere ikerketa antropologikorako metodo egoki baten bila dabil eta hau izango da Euskal Hizkuntza eta Nazioa aztertuz hizkuntzen ikerketa batetan konkretatu ahal izango duena.

BIBLIOGRAFIA

Humboldtten testuak

- Edizio orokorrak:

- GS:** **Humboldt, W.: Gesammelte Schriften** (I-XVII)
Editorea: Königlich Preußischen Akademie der Wissenschaften. (A. Leitzmann)
Berlin 1903-1936
- HS:** **Humboldt, W.: Werke in fünf Bänden** (I-V)
Editoreak: A. Flitner eta K. Giel
Darmstadt 1960

- Erabilitako testuak:

+ Euskal gaiak buruzkoak:

- Tb1:** Tagebuch der Reise nach Spanien 1799-1800
GS XV 47-356 (Euskal Herriari dagokionez 121-139)
- Tb2:** Tagebuch der baskischen Reise 1801
GS XV 356-451
- C:** Cantabrica (1801)
GS III 114-136
- DV:** Die Vasken (1805-1806)
GS XIII 1-197 edo HS II 418-627
- Fragmente** der Monographie über die Basken (1801-1802)
GS VII 593-609 edo HS V 100-113
- Ankündigung** einer Schrift über die Vaskische Sprache und Nation (1812)
GS III 288-300 edo HS V 113-126

-**Berichtigungen** und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweiten Bandes des Mithridates über die kantabrische oder baskische Sprache (1811)
GS III 222-288

-**Prüfung** der Untersuchungen über die Urbewohner Hispaniens vermittelt der vaskischen Sprache (1821)
GS IV 57-232

+ Bestelako gai ei buruzkoak:

-**Über Denken und Sprechen** (1795-1796)
GS VII 582-583 edo HS V 97-99

18Jh: Das achtzehnte Jahrhundert (1796)
GS II 1-112 edo HS I 376-505

-**Plan** einer vergleichenden Anthropologie (1797)
GS I 377-410 edo HS I 337-375

-**Materialien.** Erster Band. (1797.1798)
GS XIV 359-644

-**Musée** des petits Augustins (1799)
GS II 345-375 edo HS I519-552

- **Montserrat:** Der Montserrat bei Barcelona (1800)
GS III 31-59 edo HS V 59-93

- **Geschichte** des Verfalls und Unterganges der griechischen Freistaaten (1807-1808)
GS III 171-218

- **Betrachtungen** über die Weltgeschichte (1814)
GS III 350-359 edo HS I 567-577

-**Verschiedenheiten:** Ueber die Verschiedenheiten des menschlichen Sprachbaues (1827-1829)
GS VI 111-303 edo HS III 144-367

-**Verschiedenheit:** Ueber die Verschiedenheit des menschlichen Sprachbaues und ihren Einfluss auf die geistige Entwicklung des Menschengeschlechtes (1830-1835)
GS VII 1-344 edo HS III 368-756

- Eskutitzak:

-**Humboldt-Schiller:** *Der Briefwechsel zwischen Friedrich Schiller und Wilhelm von Humboldt* (I-II)
Editorea: Siegfried Seidel
Berlin 1962

- **Humboldt-Caroline:** *Wilhelm und Caroline von Humboldt in ihren Briefen* (I-VII)
Editorea: Anna von Sydow
Berlin 1906-1916 eta Osnabrück 1968

- **Humboldti buruzko testuak**

- **Garate 1933:** Garate, J.: *G. de Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre vasconia.*
Editorea: Diputación de Vizcaya. Imprenta provincial
Bilbao 1933

-**Menze 1965:** Menze, C.: *Wilhelm von Humboldts Lehre und Bild vom Menschen*
Editorea: A. Henn-Verlag
Ratingen 1965

- **Michelena 1973:** Michelena, L. "Guillaume de Humboldt et la langue basque" (107-125) in *Lingua e stile* 1, 1973
- **Bossong 1984:** Bossong, G.: "Wilhelm von Humboldt y Hugo Schuchardt. Dos eminentes vascólogos alemanes" (161-181) in *Arbor* 467-468 zenbakiak. Madrid 1984
- **Mueller-Vollmer 1993:** Mueller-Vollmer, K.: *Wilhelm von Humboldts Sprachwissenschaft. Ein kommentiertes Verzeichnis des sprachwissenschaftlichen Nachlasses*. Editorea: Ferdinand Schöningh Paderborn, München, Wien, Zürich 1993